

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroa eta Europako beste 16 eskualde SCREEN proiektuaren itxieran, Erroman

Ingurumeneko zuzendari nagusiak ekonomia zirkularra "iritsi dela geratzeko" azpimarratu du

Asteartea, 2018.eko urriak 23

Urriaren 18an eta 19an, H2020 [SCREEN](#) Ekonomia Zirkularren inguruko proiektu europarraren amaierako hitzaldian egon dira, Erroman, Eva García Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko zuzendari nagusia, Raúl Salanueva Hondakinen ataleko burua, Patricia Muñoz Enpresa Sustapeneko Lurzoru Industrialaren ataleko burua eta Delia Sola Europako Proiektuen eta Lankidetzako negoziatu burua.



García Balaguer, bileraren une batean.

Duela bi urte hasi zen SCREEN (Synergic Circular Economy Across European Regions / Ekonomia Zirkularren aldeko Europako Eskualdeen arteko Sinergiak) proiektua, eta, Nafarroaz gain Italia, Espainia, Portugal, Polonia, Grezia, Frantzia, Erresuma Batua, Holanda, Finlandia, Belgika, Kroazia eta Errumaniako beste 16 herrialde biltzen ditu.

Erroman egin den azkeneko mintegian, bazkideek —inbertsio, ikerketa eta berrikuntzaren arloetan lankidetzarako estrategia ezberdinak martxan jarri dituztenek—landutako ildo ezberdinen emaitzak aurkeztu dituzte, hori guztia Europako Egitura eta Inbertsio Funtsen eta Europako Horizonte 2020 finantzaketa-programaren markoan.

Bi urte hauetan, Nafarroak SCREEN proiektuan parte hartu du, eta hark koordinatutako lantaldeak lurraldeek beren Espezializazio Adimenduneko Estrategien barruan ekonomia zirkularrerako trantsizioa bizkortzen lagunduko dieten sinergiak identifikatu ditu. Bertan, Nafarroako



Zuzendari nagusia eta Nicola Zigarette.

Gobernuaren Bruselako Ordezkaritzak eta Politika Ekonomiko eta Enpresarialaren eta Lanaren Zuzendaritza Nagusiak, Industriaren, Energiaren eta Berrikuntzaren Zuzendaritza Nagusiak eta Ingurumenaren eta Lurralde Antolamenduaren zuzendaritza nagusiak (Eva García

Balaguer da buru) parte hartu dute.

García Balaguerrek Erromako hitzaldian azpimarratu zuen ekonomia zirkularra kontzeptu berri bat dela "hemen geratzeko etorritakoa", eta "nahitaezkoa dela hura ulertzea eta gizarte osoan kultur aldaketa bat lortzen laguntzea". Eva Garcíak mahai-inguru batean parte hartu zuen Europako beste eskualde batzuekin (Lazio eta Lombardia Italia Erdialdeko eskualdean eta Azoreak Portugalen). Mahai-inguru horretan eskualde ezberdinek ekonomia zirkularraren arloan indarrean dituzten politikak eta estrategiak aztertu zituzten.

García Balaguerren hitzetan, SCREEN proiektua "une gogoangarria izan da koordinazio- eta lankidetzaren berriak ezartzerakoan, ekonomia zirkular baterantz lan egiteko Europako lurraldeen arteko sinergiak aprobeztatu dituelako".

Zuzendari nagusiak nabarmendu egin zituen "Nafarroaren ikuspegi estrategiko kulturalki jasangarria eta haren Ekonomia Zirkularraren 2030 agenda berria, oinarritzat dituen Foru-lege berriaren hondakinen kudeaketa, hezkuntza, biomaterialen erabilera eta ekoizpen ekologikoa nekazaritzan eta ekonomia soziala, eta proiektu berritzaileen adibideak eman zituen". Halaber, Nafarroako Espezializazio Adimenduneko Estrategia (S3) azaldu zuen. Estrategia horren barruan 7. erronka ekonomia zirkularrarena da, eta, ildo horretatik, sektore estrategiko ezberdinak sustatu nahi ditu, nekazaritzako elikagaiak, automozioa eta energia berriztagarriak kasu. Sektore horietan Nafarroak baditu ekonomia zirkularraren trantsizioarako prest dauden zentro teknologikoak eta enpresak".

Azken emaitzak eta etorkizuneko lankidetzaren

Landutako ildo bakoitzaren emaitzak aurkeztu ziren H2020 SCREEN proiektuaren azkeneko bileran.

Laburbilduz, ekintza hauek bete dira: proiektuek bete behar dituzten zirkularitate-irizpideak definitu dira horiek identifikatzen laguntzen duten adierazleak oinarritzat hartuz; herrialde-lankidetzarako metodologia zehaztu da; arduradun politikoei zuzendutako gomendioen eskuliburua egin da Europako, nazioetako eta herrialdeetako funts anitzetan ekonomia zirkularra bultzatzeko, eta 2018ko urriaren 31n proiektua amaitzen denean herrialde-lankidetzarekin jarraitzeko lan-eremu ezberdinak aurkeztu dira.

Proiektuak, Nafarroaren lidergoarekin, memorandum bat formalizatzea lortu du, zeinetan eskualdeek hitzematen duten eskualde arteko proiektuetan FEDER- Eskualde Garapenerako Europako funtsak erabiltzeko aukera aztertuko dutela (Egiturazko Funtsen Araudi Markoaren 70. artikulua).

Bestalde, Nafarroak Erroman duen ordezkariak Buygreen Erosketa Berdearen Foroan parte hartu zuen eta Italiako Lazio eskualdeak eta Italiako Tokiko Agenda 21ek erosketa publiko berderako praktika onak, proiektuak eta ekimenak aurkeztu zituzten. Parte hartu duten proiektu eta tailerren artean BIOVOICES azpimarratu behar da, erosketa publiko berdeari buruz ikasteko eta bioekonomia sustatzeko ekimena.

Zuzendari nagusia "Lazio Smart Green" strategiaren aurkezpenean izan zen. Hizlarietako bat Lazioko eskualdeko lehendakaria, Nicola Zingaretti, izan zen. Estrategiak ekonomia zirkularra, berrikuntza, iraunkortasuna eta energia berdearen erosketa barne hartzen ditu eta erosketa publiko berdea du gai nagusitzat, Nafarroako Kontratazio Publikoko Lege berdearen ingurumeneko eta gizarteko irizpideekin bat etorritik.